

AMOROTOKO UDAL FUNTSEKO ISAD ARAUA

Identifikazio-arloa

Erreferentziazko kodea	ES 48020 AHFB/BFHA U48004
Titulua	Amorotoko Udal Artxiboa
Data(k)	1565 – 1940
Deskribapen maila	Funtsa
Deskribapen-unitatearen bolumena eta euskarria	<ul style="list-style-type: none"> – Metro linealak: 4,3 m/l – Kaxak: 36 – Espediente-kopurua: 792 Papera.

Testuinguru arloa

Ekoiizlearen izena	Amorotoko Udala.
Instituzio historia	<p>Lea-Artibai eskualde bizkaitarrean kokatzen da Amoroto, Gernikako barruti judizialaren barruan.</p> <p>Bere udalerrian daude aztarnategi arkeologiko nabarmen batzuk, hala nola Abittaga, Armiña, Pepetxo eta Abillaga.</p> <p>Amoroto Lekeitioko Jasokundeko Andre Mariaren basilikari atxikitako parrokitako bat izan zen. Erdi Aroaren amaieran, oparoaldi ekonomiko baten ondorioz, Amorotoko biztanleria hazi egin zen, eta bertako bizilagunek hiribildutik desanexionatzea eskatu zuten. Hainbat saiakera zapuztu ondoren, Leon X.a Aita Santuaren bulda batek Amoroto eta Gizaburuagako parrokiak Lekeitiokotik desanexionatzeko baimena eman zuen 1519. urtean. Ordutik, Amoroto Adan de Yarzatarren menpeko elizate gisa geratu zen.</p> <p>Jaurerriko Batzar Nagusietako hamabigarren eserlekua hartu zuen.</p> <p>Batez ere landa-eremuko ekonomia duen udalerria da. Nekazaritzari lotuta, irin-errota batzuk zeuden, hala nola Arminerrota, Bolu eta Errotabarri. Hala ere, kareharrizko harrobi eta burdinola batzuk ustiatu zituen. Oinarrizko beste jarduera ekonomiko bat basoen ustiapena izan zen, oso lotua baitzegoen inguruak egurrez hornitzearekin.</p>



Instituzio historia	XIX. mendearen bigarren erdialdean, Amorotok bikoiztu egin zuen bere populazioa, lurraldearen gainerakoarekin bat etorritz. Hala ere, lehen sektoreari lotutako ekonomiak eragin handia izan du udalerrriak XX. mendearen hasieratik XXI. mendearen hasierara arte jasan zuen despoblazioan. Orduan alderantzikatu zen berriro joera.
Artxibo historia	Amorotoko elizatearen dokumentazio historikoa udaletxean gordeta egon izan da, harik eta 1993an Bizkaiko Foru Agiritegi Historikora lekualdatu zen arte. Lekualdaketa horretan batez ere 1940 baino lehenagoko dokumentazio historikoa sartu zen; gainerako dokumentazioak udal-artxiboan jarraitzen du. Dokumentazioa kontserbatzeko baldintzak ez dira beti egokienak izan, lekualdaketa egin aurretik Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Historikoaren Zerbitzuak egindako txostenean emandako datuen arabera. Horren arabera, dokumentazioa ez zegoen kutxa egokietan gordeta edo antolatuta, berriena izan ezik. Ez zegoen inbentariarik, ez eta deskribapen-tresnarik ere 1993 baino lehen. Dokumentu eta liburu batzuek, gainera, zaharberritzeko beharra zuten.
Sarrera modua	Bizkaiko Foru Aldundiak eta Amorotoko Udalak urte horretako urtarrilaren 14an sinatutako lankidetzeta-hitzarmena betetzeko, BFAHn 1993ko martxoaren 17an sartu zen dokumentazioa.

Eduki eta egitura arloa

Irismena eta edukia	Amorotoko elizateak eta Udalak 1565 eta 1940 bitartean sortutako dokumentazio historikoa. Gainera, Udal Epaitegiaren 1878 eta 1937 arteko 12 dokumentu dituen kutxa bat dago.
Balorazioa, hautaketa eta ezabaketa	Kontserbazio iraunkorreko dokumentazioa.
Sarrera berriak	Beste hitzarmen bat sinatuz gero, sarrera berriak egon daitezke.
Erakundea	Dokumentazioa Udal Artxibozainen Lantaldearen sailkapen-koadroaren bidez antolatu da, serie batzuekin handituta. Koadroa BFAHn dauden udalerrri guztietarako erabiltzen da, eta, beraz, baliteke udalerrri horretan sortutako dokumentazioaren artean serie batzuk ez islatzea.



Erakundea	<p>Gobernuaren, Idazkaritzaren eta Udal Administrazioaren eta Ogasunaren jarduerak hartzen ditu, honela:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gobernua: 33 dokumentu 1720 eta 1937 bitartekoak. – Idazkaritza: 430 dokumentu 1565 eta 1940 bitartekoak. – Ogasuna: 311 dokumentu 1719 eta 1940 bitartekoak.
-----------	--

Sartzeko eta erabiltzeko baldintzen arloa

Sartzeko baldintzak	Sarrera askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Erreproduktzio baldintzak	Erreproduktzio askea. Salbuespenetarako, ikus Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoaren ISAD.
Dokumentuen hizkuntza/idazkera	Gaztelania.
Ezaugarri fisikoak eta baldintza teknikoak	Kontserbazio-egoera, oro har, ona da.
Deskribapen tresnak	<p>Dokumentazio guztia katalogatuta dago, eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak erabiltzen dituen deskribapen-tresnen bidez eskura daiteke:</p> <ol style="list-style-type: none"> a. Sailkapen-koadroa. b. ARWE datu-basea, artxiboari buruzko katalogazioa kudeatzeko. Hainbat sarbide-puntu eta onomastika, toponimia eta gaikako indize ditu. c. ARIT datu-basea, kanpo-kontsultarako, aurrekoaren informazio eta sarbide berarekin.

Lotutako dokumentazio arloa

Jatorrizko dokumenturik ote dagoen eta horien kokalekua	Dokumentazio guztia originala da.
Kopiarik ote dagoen eta horien kokalekua	<p>Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa gordetzen duen dokumentazioaren zati bat digitalizatzen eta Interneten erabiltzaileen eskura jartzen ari da. Sarbidea ARITen datu-basearen bidez ere egiten da.</p> <p>Akta-liburuak, 1830 baino lehenagoko dokumentazioa, 1900 baino lehenagoko dokumentazioa (planoak barne), eta 1910 baino lehenagoko biztanleen erroldak digitalizatu dira.</p>
Lotutako deskribapen unitatea	Amorotoko Udalarekin zerikusia duten dokumentu-iturriak daude BFAHren atal guztietan, batez ere administrazio-sailean eta sail judizialean.



Lotutako deskribapen unitatea	Udalak 1941etik gaur egun arte sortutako dokumentazioa udaletxean gordetzen da.
Argitalpenei buruzko oharra	Martínez Hernández, Inmaculada (2003). Amoroto, Gizaburuaga y Mendexa. Monografías de los Pueblos de Bizkaia. Diputación Foral de Bizkaia. Bilbao.

Oharren arloa

Oharrak	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoko Udal Atalak artxibo historikoaren funtzioa betetzen du funtsak gordailutu dituzten udalerrientzat.
---------	--

Kontrol arloa

Artxibozainaren oharra	Actuaciones Culturales Estrategicas 4 SL enpresak Bizkaiko Agiritegi Historikoko udal-atalerako egindako deskribapena, bertako teknikariak gainbegiratuta.
Arauk edo erregelak	General International Standard Archival Description, Second Edition, ISAD (G) (Agirien Deskribapenerako Nazioarteko Arau Orokorra). Deskribapen Agirien Batzordeak hartutakoa Agirien Nazioarteko Kontseiluan, Stockholmen (Suedia), 1999ko irailaren 19-22an. Madril. 2000.
Deskribapenaren data	20/01/2020